



Denon ardura delako

Udaleko berriak: aurrekontuak

Elkarrizketa: Vanessa Jesus Sousa

Martxoaren 8ak izan du bere aldarria Itsasondon

Aurten Aste Santua goiz etorri zaigu. Urteko lehen oporraldia pasa ondoren, urtea ziztu bizian dolakoan gaude. Negua ere gogor joan denez eguzki izpi eta goxotasun pixka baten beharrean bagara.



Agurra

Udaberriari behar den ongietorria egiteko, pixkanaka gure baratzeak, balkoiak eta etxean ditugun loreontzitxoak antolatzen joan gaitezke, lurra berritu eta gozatu; landatzekoak aukeratu, eta egiteko horietan eguzki izpi batzuk xurgatu. Proposamen bat: landareekin eskurik ez duzuenak bazarete ere, aukeratu landare bat (zaintza errazekoa ahal dela), aukeratu leku egoki bat eta arduratu zaitez bera zaintzeaz. Ez dizu denbora handirik kenduko eta nolabait ere naturarekin konexio txiki bat sortzen lagunduko dizu. Dena teknologia den garai honetan, lurrera eta naturara begirada bat zuzentzea ez zaigu inori gaizki etorriko.

Lore eta baratza lanak alde batera utzi, eta Itsasondo 2.0. aldizkariaren edukian murgilduko gara. Edukiaren zati handi bat udalean eta herrian gertatutakoei begira emango dugu, ez baitira gutxi izan azken aletik gertaturikoak. Aurtengoan martxoaren 8ak protagonismo berezia izan du gurean, eta aldizkari honetako gai nagusietako bat izango da horregatik, Itsasondon martxoaren 8aren inguruan izandako mobilizazio ugarietz gain, inkestaren tartea ere berdintasunaren ingurukoa izango da.

Aurrera begira jarrita, berriz, agenda osatua daukagula ezin uka. Udaberriak eta giro onak energia eta asmo onez betetzen gaitu, eta kalera irten eta ekintza ugari egoten da parte hartzeko. Ez gaitezen etxean geratu eta anima gaitezen parte hartzera.

Honekin, hurrengo alera arte agurtzen gara. Datorrena uste baino lehen iritsiko denaren inolako zalantzarik ez daukagu. Bitartean, ondo bizi. ■



Aurkibidea

- 03-05. **Udaleko berriak**
- 06. **Herri bideak**
- 07. **Haurreskola**
- 08. **Eskola**
- 09. **Jubilatuak**
- 10. **Elkarrizketa:** Vanessa Jesus Sousa
- 11. **Tipi-tapa**
- 12-13. **Ongizatea:** biolentzia matxista
- 14-16. **Martxoak 8**
- 17. **Berdintasuna:** topaketa eguna
- 18. **Errefuxiatuak**
- 19. **Hondakin organikoak**
- 20. **Informatika:** deskargatzeko sareak
- 21. **Hemeroteka**
- 22. **Natura eta errezeta**
- 23. **Euskararen atala**
- 24. **Oharrak / Kultur agenda**

Sarrerako bertsoak

Doinua: *Ijituena*

Alkatxofa ta baratzeria,
trufadun risottoa hor,
sukaldean den tailer batean
Iker behar da derrior
matematika eta futbola
Eisntein-Messi nor ala nor,
kultura asko eskuartean
baina euskaraz gutxi dator.

Martxoak zortzi nola joan zen
iritziak agerian,
Venessa berriz, mintzatu zaigu
Brasileko irudian,
herri bideak argitu dira
inbentario garbian
jubilatuak urtero gisa
goxo sagardotegian...

Udaletxeko berriak eta
aurrekontuen zerrenda,
udaberria bustia bezain
hotza gertatu omen da...
lokatz artetik ateratzeko
zer egin ta zer gomenda:
dagon pausorik seguruen
hankautsiko omen da.

Udaleko berriak

Azken hiru hilabeteetan udalean landutako eta aurrera emandako ekimenak hauek izan dira:

Udal batzarrak

Otsailaren 19an, martxoaren 15ean eta martxoaren 19an egindako udal bilkuretan tratatutako gai garrantzitsuenak hauek izan dira:

Onartutako araudiak

- Goiko kale 2an dagoen Gaztegunea eta bertan antolatutako sormen gelaren erabilera arautzeko araudia onartu da, batetik; baita udaletxeko erabilera anitzeko gelen araudia aldatzea ere. Jendaurrean ikusgai egon dira apirilaren 16a arte.
- 2017an Udalak labe elektriko eramangarria erosi zuen, eta labe horren erabilera arautegia onartu zen. Jendaurrean ikusgai egon da apirilaren 16a arte.
- Itsasondoko Euskeraren Erabilerako Plan Estrategikoa 2018-2022 eperako onartu da.

Bestelakoak

- Nagusia 7ko 2. solairuan udalak duen etxebizitza errentan ematea erabaki zen, etxeetara horren berri eman zen, baina ez da inolako eskaririk aurkeztu. Epea martxoaren 21ean amaitu zen.
- Txakur arrisksu batzuen zehapen espedientea tramitatu da.
- Argiztapen sistema publikoaren aldaketa lanak egiterakoan Aizkorpe enpresak jarritako fiantza itzultzea erabaki da.
- Errota pilotalekuaren irisgarritasuna bermatzeko proiektua onartu da eta 402.011,25 €ko zenbatekoa dauka. Proiektu hori 2018ko aurrekontuaren kontura finantziatuko da.
- Central Forestal-ek herri bideetatik egurrak ateratzeko ezarritako fiantza itzultzea onartu da.
- 2018ko aurrekontuan kredituak aldatzeko 1. Espedientea onartu da eta 139.825 €ko zenbatekoa du.
- 2018ko udal aurrekontua onartu da. 1.045.100 €tako zenbatekoa du, informazioa aldizkari honetan argitaratu dugu.



Alkate dekretuak

- Abenduko, urtarrileko eta otsaileko fakturen zerrendak onartu dira. Guztira 72.346,74 €.
- Udaletxeko kulturgunea eta lokalak erabiltzeko herriko elkarte eta eragileen partetik hiru eskari izan dira.
- 2017ko laugarren hiruhilabeteko ur errolda onartu da 12.328,79 €ko zenbatekoarekin.
- Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko errolda onartu da: 57.445,21 €.
- Urkiako Elkarteari 1.104,89 €.
- Larrialdi laguntzak onartu dira: 6.209,56 €.
- Laugarren kreditu aldaketa espedientea onartu da: 56.115,36 €.
- Obra txikien lau lizentzia eman dira.
- Tasen ordainketan laguntza emateko aurkeztutako espediente bakarra bideratu da, eta 172,12 €tako laguntza eman da.
- Hilerrian kontzesioak emateko bi espediente onartu dira.
- Herri bideetatik egurrak ateratzeko fiantzak itzuli dira.
- 2017ko urteko aurrekontuaren likidazioa onartu da. Emaiza oso ona da, gerakina 530.648,89 €koa da.

Biztanleria datuak

2018ko urtarrilaren 1era egokitutako biztanle datuak hauek dira:

2017-1-1	648 biztanle
Altak jaiotzak	7
Inmigrazioak	46
Bajak heriotzak	5
Emigrazioak	49
2017-12-31	647 biztanle

Dirulaguntzak: eskatutakoak

- FORU ALDUNDIARI azken hiruhilabetearen honako dirulaguntzak eskatu dira:
 - Itsasondo 2.0 aldizkaria argitaratzeko sortzen duen gastua finantzatzeko laguntza eskatu zaio.
 - Herri bideak konpontzeko laguntza.
 - Hiri Antolaketa arauen aldaketa puntualaren tramitazioan egin beharreko parte hartzea. Partaidetza: Beko kaleko hiri antolaketako aldaketa puntuala egiteko laguntza.
- EUSKO JAURLARITZARI Ekonomiaren Garapeneko departamentura 2018ko urtarrilaren 2an onartutako aginduan oinarrituz Errota pilotalekuaren irisgarritasuna obra finantzatzeko laguntza eskatu zaio.
- GOIMEN ELKARTEARI: Urkia auzoan natura eta giza baliabideen inguruko proiektua gauzatzeko laguntza eskatu zaio.



Dirulaguntzak: jasotakoak

- Murumendiko ingurune naturala proiektua finantzatzeko 17.100 €tako laguntza
- 2017-2018 Eskola Agenda finantzatzeko 650 €.

2018ko Egutegi Fiskala

- 2018rako onartutako egutegi fiskala 2018ko urtarrilaren 12an argitaratu zen.
- 2018ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 30a bitartean, zerga eta tasa hauek kobratuko dira:
 - Ibilgailuen zerga otsailaren 15etik apirilaren 30era.
 - Kargu data martxoak 2.
 - Uraren tasa 2017ko laugarren hiruhilekoa otsailak 20tik apirilaren 30era.
 - Kargu data apirilak 3an.
 - Zabor tasa 2018ko urtarrila-otsaila-martxo eta apirila bitartekoa, maiatzak 2tik ekainak 30era.
 - Kargu data ekainak 4ean

Akats zuzenketa

Aurreko aldizkarian Bizi Nai Jubilatu elkarteari 2017ko ekintzak finantzatzeko 2.100 €ko laguntza eman zitzaiola adierazi zen, baina gutxiago izan zen; alegia, 1.619,12 €koa.■

Sormen gela martxan da!

“Sormena pertsona guztion potentzial bat da, jarduera bat garatzeko balio diguna, beti ere asmoa zerbait egitera heltzea izanik. Sortzea, barnean daramagun hura adierazteko bidea ematea da. Guztiok gara sortzaileak, guztiok daukagu talenturen bat, eta ez soilik musikariek, artistek edo poetek. Beharrezko gauza bakarra sormena lantzeko esparru batekin kontaktzea da. Gaur egun, neurozientziak geure buruen plastikotasuna ezagutzera eraman gaitu: sortzaileak izaten ikas dezakegu, irakurtzen ikasten dugun bezalaxe”. (Lea Espazioa, 2018)

Badugu sormena lantzeko espazio aproposa, Gaztelekuko lehen solairuan txukundu eta prestatzen hasi garen Sormen gela, hain zuzen ere. Haren helburua, sormena modu anitzetan garatzeko aukera ematea izango da; eta, horregatik, ez dugu zerbitzua erabiltzeko adin mugarik jartzen.



Beraz, haur, gazte zein heldu, animatu zaitezte! Ideiaren batekin bueltaka bazabiltz hauxe da hura garatzeko espazio aproposa! Pixkanaka, guztion artean hau osatzen eta hornitzen joatea da asmoa, beraz, eman zure iritziak eta ideiak.

Informazio gehiagorako, izena emateko edo Sormen gelako sarbidea lortzeko, udaletxeko arreta zerbitzura jo dezakezu.■

2017ko ITXIERA

Sarreretan aurrekontuko aurreikuspenak bete dira.

Gastuetan berriz, urtean zehar gastu berriei aurre egiteko kreditu aldaketa espedienteak onartu ziren. Onartutako kreditu aldaketen espedientea 62.230€takoia izan zen. Kreditu aldaketa espedienteak 2016ko soberakinarekin finantziatu ziren eta ondoren azaltzen diren gastuei aurre egiteko erabili ziren:

- Udal karguen dedikazioa aldatu zelako eta zenbait zerbitzu (garbiketa, pintura lanak, e.a.) kontratatutako langile bidez estali zirelako. 11.000 €
- Udal ibilgailuen aberiek eta udal eraikinetako argi, gas eta argiteri gastuak handitu zirelako. Eta arkitektuaren gastuak urte amaiera arte izan zirelako. 28.930 €
- Biohondakinen guneak egin eta labe elektriko berria erosteko. 21.000 €

Nahiz eta goiko gastuak aurreikusitakoak baino handiagoak izan beste partida batzuetan uste baino gutxiago gastatu zen, ondorioz emaitza positiboa izan zen, 2017ko gerakina handitzeko aukera izanik.

2017an gauzatu ez diren gastu garrantzitsuenak hauek izan dira:

- Beko kaleko plan partziala eta topografia, 2018rako utzi da, eta arauen aldaketa bidez burutuko delako. 17.545 €
- Ur Kontadore sektorialak aldatzea, aurreikusitako beste partida batetik finantziatu delako. 3.000 €
- Langilegoaren partidan, arkitektuaren lanposturako lehiaketa atzeratu zelako. 8.476 €
- Landa bideetarako ezarritako partidan uste baino gastu gutxiago izan da, luiziak izan ez direlako. 8.000 €
- Ur hornidura lanak burutzeko ezarritako partidan ere soberakina izan da, aurreko urteetan baino aberi eta konponketa gutxiago izan direlako. 8.000 €

GUZTIRA

60.930 €

GUZTIRA

45.021 €

2018ko AURREKONTUAK

INBERTSIO TAULA

	Inbertsioa	Dirulaguntza	Ekarpena
Ingurune naturalaren terreno erosketa	15.000		15.000
Ur kontadore sektorialak aldatzea	3.000		3.000
Bio-hondakinen guneak egitea	5.000		5.000
BEKO KALEKO Topografia eta plan partziala	7.005		7.005
Ingurune naturala Murumendi 2017	34.424		34.424
Ingurune naturala: Murumendi 2017	34.424		34.424
Herri-bideetan egin beharreko berrikuntzak	33.101		33.101
HERRI BIDEEN inbentarioa	5.335		5.335
URKIKO ATERPEA egokitzeko lanak	3.000		3.000
ERTOTXE EUSTEKO premiazko lanak	5.000		5.000
FRONTOIKO IRISGARRITASUNA egokitzea	266.186	199.075	67.111
Kultura	6.800		6.800
	418.276 €	199.075 €	219.201 €

Urteroko diru sarrera eta gastuetaz aparte:

Inbertsio garrantzitsuenak frontoiko irrisgarritasunera bideratuko dena da, Murumendi ingurunean burutzen ari garen ingurune naturalaren eta bio-dibertsitatearen zaintzarako proiektuarekin jarraitzea, eta herri bideetan egin beharreko konponketak, besteak beste.

Udal foru fondoa:

Bestalde, kontuan izan behar da aurten GFaren Udal Foru Fondotik (diru-sarrera iturri nagusia) jasoko duguna 466.689 euro izango direla. Frontoiko irrisgarritasun proiektua aurrera eramateko Aldunditik 162.000 euro eta Eusko Jaurilaritzatik 37.075 euro aurrikusten ditugu; dena den, azken laguntza hau ez dago bermatuta.

SARRERAK

Zergak	138.697
Obra baimenak	6.255
Tasak	137.958
U.F.F. aren ekarpena eta diru-laguntzak	462.879
Diru-laguntzak	50.571
Errenta-interesak	14.058
Orubeen salmenta	
Dirulaguntza proiektu handi	50.161
Kreditu gehiagarriak finantziatu	-
Epe luzera jasotako maileguak	-
	860.583 €

GASTUAK

Giza-baliabideak	264.626
Gastu komunak	213.025
Interesak mailegu	110
Diru-laguntzak eta erakundeei ekarpenak	120.825
Inbertsio gastuak	192.575
Transf. landa Gipuzkoa	-
Epe luzerako maileguez amortizazioa	-
	791.163 €

Itsasondoko herri-bideen inbentarioa

Sugandilen isatsak baino geldiezinagoa den historiak erakusten digun bezala, gizarte baten bizimodua eta erabilerak aldatu edo galtzen direnean, azpiegiturak ere desagertzen joaten dira, erremediorik gabe ahazten.

Jakina da oraindik bizirik dirautela Itsasondoko bideak ezagutzen dituzten azken pertsonak. Ez luzerako, ordea: gutxi dira dagoeneko gurdibideak zer ziren eta nondik zioazen dakitenak. Nork daki garai bateko bide-aitzurak nora joanak diren eta andabideak edo elizbideak ba al genituen ere?

Mendeetan zehar eraikita, udalerrian barreiatutako bizilekuak herrigunearekin lotzen zituzten. Baserriak ere bere soro eta mendiko sailekin lotzen zituzten eta denak azkeneko txokoa izango zuten kanposantuarekin.

Hori guztia erabat galdu aurretik, udalak testigantza jaso nahi izan du; finean, besteak beste, bere betebeharra ere badelako. Izan ere, aurrekoek zabaldu eta mendeetan zehar auzolanean zaindu izan dituzten bideak guztionak dira, gordezko moduko herri-ondarea da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, beraz, horrenbeste irakatsi diguten Sendo enpresako Imanoli eta Guillermoni, bide horien zentzu kolektiboa indartzeagatik. Garbi utzi digute lehen dena bedeinkatzen zela: etxeak, soroak, azienda, ura, zorigaitzetatik babesteko. Gaur, berriz, bedeinkatutako guttia digitalizatzen saiatzen gara.

Hala ere, idatzi hau lan honetarako ordezkaezinak diren herritarrei zuzenduta dago. Honekin hasi ginenean ez genuen espero halako parte hartze izugarririk. Oker genbiltzan. Baserrietako bizitzak bizirik dirau oraindik Itsasondon, eta herri-bideak garrantzitsuak izaten jarraitzen dute herritar askorentzat.

Bejondeizuela eman diguzuen lezioagatik! ■



Haurreskola - maiatzeko matrikula irekiera



Kaixo:

Itsasondoko haurreskolatik, berriro ere hemen gaude zuekin. Txoko honetatik adierazi nahi dizuegu laster maiatzeko matrikula hasiko dela hurrengo ikasturteari begira. Data, apirilak 30etik maiatzak 11 arte izango da. Informazioa jaso nahi baduzue haurreskolako telefonora deitu, 943-16 48 31 zenbakira. Badakizue gure eguneroko lanean, haurren jarduera autonomoa dugula oinarri (jolasean, jaterakoan, atsedena hartzerakoan eta pardela aldatzeko garaian). Hori lortzeko bidean saiatzen gara haurreskolan espazio, denbora eta material jakin batzuk eskaintzen, haurren beharrak eta interesak errespetatuz. Horretarako, aurretik, haurren eta hezitzailearen arteko erlazio afektibo segurua eraikitzea ezinbestekoa izango da.

Bukatzeko, orain artean haurreskolan hamaika haur izan ditugu hainbat jardueretan parte hartzen. Ikasturtean zehar beti egoten da haur mugimendua, urtez urte kopuruak desberdinak diren arren. Beraz, aurtentzako talde ederra gaude. Gure ordutegia 7:30etik 17:00etara da. Besterik gabe, jarduera desberdinen irudiak eskaintzen dizkizuegu, horiek baitira gure lanaren isla.

Laster arte. ■

Urkipeko futbol txapelketa

Proiektu bezala kirola lantzen ari ginela sortu zitzaigun futbol txapelketaren inguruko ideia: Matematika lantzeko baliagarria izango zaigun zer asma dezakegun, galdetuta, norbaitek futbol txapelketa proposatu zuen.



Horrela puntuak batu eta kendu egin ditzakegu! Sartutako golek ere sailkapenean puntuak balio ditzakete! Ikasleak banatzeko zati-ketak erabil ditzakegu!... Irakasleok beste balio batzuk ere ikusi genituen proiektuan: hainbat adinetako haurrak elkartuko ditugu; neskak eta mutilak jolas beraren inguruan elkartzeko balioko digu; taldearen balioaz jabetuko dira; talde-lana bultzatuko da; txikienek handiengandik ikasiko dute; neskak eta mutilak, horretan ere, berdin joka dezakete...

Baina, futbola erabili behar dugu horretarako? Berriro ere futbol santu eta ahalguztiduna?

Eurek aukeratutakoa da, eman diezaiegun aukera!

Horrela, beraz, ikasle talde baten gidaritzapean, taldeak egin zituzten (1. mailatik 6. maila bitarteko haur guztiekin; bost talderekin, alegia), egutegia erabaki (urtarrila eta otsaila bitarteko patio garaian), arautegia ongi finkatu, eta... jolastera!

Inoiz futboleant ibili gabekoak ere tartean ziren. Egoera horretan jolas egin behar!

Batzuk jolasten aritu ziren; besteak, berriz, ikusten eta txalotzen. Partida hasi aurretik hizlariak taldeko jokalariek aurkezten zituen; ondoren, epaileak deituta, bi kapitainek zeinek aterako baloia zozketatzen zuten, eta horrelaxe hasten zen partida.

Talde bakoitzeko atezainak eta lau jokalarik jokatzen zuten; aulkian beste jokalariek entrena-tzailearekin batera egoten ziren, hau da, irakaslearekin. Denbora tarte bat pasatu ondoren, aldaketak egiten zituzten. Noizbehinka golak zetozen; eta, ondoren, oihuak eta ospakizunak alde batetik; baina aurpegi txarrak, ostikoak aurrean harrapatutakoari... beste aldetik.

Partida batzuk jokatu ondoren, guztiok bildu ginen, eta hausnarketa hau egin genuen:



Txapelketa antolatzerakoan, zein ziren gure helburuak?

Honakoak ziren helburuak: ondo pasatzea, neskak eta mutilak elkarrekin jolastea eta hainbat adinetako haurrek elkar ezagutzea.

Horri tiraka, gertatzen diren zenbait egoera -haserretzea, neurri gabeko ospakizunak...- helburu horiekin bat al datoz? Sailkapenari gutxiago begiratzea, neurrigabeko pozak besteak mindu ditzakeela konturatzea, zenbait gertaerak sortzen diguten pozaz gozatzea... horiek izan behar ditugu kontuan.

Amaiera eman genion txapelketari. Irabazleak, bigarrenak... zein izan ziren askok ez genuen jakin. Bost axola! Ordura arte futboleant ibili gabe zeuden batzuei gustatu egin zaie, eta orain hor ikusten ditugu jolasean; beste batzuek garaipenak eta porrotak (ez dago porrotik) lasaiago hartzen ikasiko al zuten?

Datorren urtean errepikatuko al dugu? Auskalo! Beste jolas bat agian! Baina aukeratzen duguna aukeratzen dugula ere, ez ahaztu! Lagunarteaz gozatu, errespetatu taldekoak eta beste aldekoak, jokalariek guztiei eman protagonismoa, eta ahal bada... irabazi. ■

Jubilatuek martxan diraute!

Udaberrian sartu berri garen honetan, jubilatuek ere martxan jarri dira berriz. Martxoaren 25ean Jubilatuek elkarteko urteko batzar orokorra egin zuten elkartean bertan, eta J. M. Mendizabal juntan sartzeko erabakia hartu zuten.

Neguan txango asko egin ez badituzte ere, udaberriko epeltasuna iritsiko delakoan eta eguraldi ona egingo duen esperantzarekin, txangoak antolatzen hasi dira berriz. Lehen Andoainen dagoen Gaztañaga sagardotegira egin zuten, apirilaren 5ean. Eguerdi aldera trenea hartu eta 14:00etan bazkaria izan zuten, kuadrillatxo polita elkartu zen bertan. Arratsaldean herrian bueltatxo bat eman, eta etxerako bidea hartu zuten.

Aurten erronka polita dute Itsasondoko Bizi Nahi elkarteko kideek; izan ere, urriaren 20an Legorretan ospatuko dute Gipuzkoako jubilatuen martxa, eta han bazkalduko badute ere, goizean Itsasondora etorriko dira tipi-tapa ehunaka lagun. Pixkanaka, bi udalekin eta Legorretako jubilatuekin elkarlanean antolaketarako prestaketa lanak egiten dabilta, ilusioz eta gogotsu! ■



Vanessa Jesus Sousa

Brasilen, Goas estatuan jaio zen 1981an, eta han familiarekin bizi zen. 24 urte zituenean Galiziarra joan zen, bertan sei urtez bizi izan zen, eta hortik Harora (Errioxa, Espainia) joan zen bizitzera. Izan ere, ahizpa bertan bizi zuen. Haron bi urte eta erdiz bizi izan zen, eta han ezagutu zuen Luis, gaur egun bere bikotekidea dena.

Luis Legorretakoa denez, handik gertu bizitzea erabaki zuten, eta Itsasondora etorri ziren, Mar eta Geovana izeneko bi alabekin batera. Gainera, ahizpa Legorretan bizi da, gertu-gertu.



Tarteka onddoak eta perretxikoak biltzera joaten da, eta batzuetan baita ehizatzerare.

Noiz etorri zinen Itsasondora?

2014an, orain dela lau urte.

Zergatik erabaki zenuen zure herrialdetik joatea? Eta zergatik Itsasondora etortzea?

Kultura eta ohitura desberdinak ezagutzeko gogoia nuelako erabaki nuen nire herritik joatea.

Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehen egunari buruz?

Lehenengo egunetik jendea oso adeitsua zela gogoratzen dut.

Familiako kideak dituzu lehen bizi zinen herrialdean?

Bai. Gurasoak, anaia eta aizpa bat.

Zer lanbide zenuen zure herrialdean?

Hortz-klinika batean egiten nuen lan.

Zer lanbide duzu hemen?

Nire alabak zaintzen ditut, eta lana bilatzen hasita nago. Orain dela gutxi etxeko laguntzaile izateko ikastaroa egin dut, eta praktikak Idiazabalgo komentuan egin ditut.

Zeren falta sumatzen duzu hemen?

Nire familiaren falta sumatzen dut.

Zer ez zaizu gustatzen hemen? Eta zer duzu gustoko?

Hotza ez zait gustatzen, baina Itsasondok duen lasaitasuna gustuko dut.

Zer zaletasun dituzu?

Onddo bila joatea gustatzen zait.

Janari bat.

Hangoa: bertako plater tipikoa, arroz txuria babarrun eta haragiarekin.

Hemengo: aukeratzea zaila egiten zait, hemengo janaria oso ona da, txistorra eta lekak, batzuk esatearren.

Itsasondoko/Goierriko txoko bat.

Hondartza da gehien gustatzen zaidan lekua.

Amets bat?

Nire ametsa gure alabek beraien helburuak lortzea da.

Jaso duzun oparirik bereziena?

Mar eta Geovana, gure alabak eta nire gizona.

Zeri diozu beldurra?

Nire herrira ezin bueltatzearen beldur naiz.

Zerk sortzen dizu irribarrea?

Txantxak, adibidez, barregura eragiten didate.

Itsasondon biziko ez bazina?

Herri txiki batean biziko nintzateke.

Nola ikusten duzu zure burua urte batzuk barru?

Hemendik bost bat urtera Itsasondon bizitzen ikusten naiz; ni oso gustura nago, baita alabak ere. ■

Memoria tailerra

Ongizateko Batzordeak lagunduta eta boluntario talde baten lanari esker jarri zen martxan Memoria Tailerraren egitasmoa, 2016an. Parte-hartzaileak zein bultzatzaileak pozik daude esperientziarekin. Hileko azken asteazkenetan izaten da tailerra Bizi-Nahi jubilatu elkarteak, eta hasieran hamabi-hamahiru pertsona hasi baziren ere, gaur egun lau-bost dira tailerrera gerturatzen direnak. Egoera horrek Ongizate Batzordea kezkatu egin du.



Oro har, gustura aritu dira azken hilabeteotan Bizi-Nahi jubilatu elkarteak izan den memoria tailerrera gerturatu direnak, eta ez dute zalantzarik: "Errepikatze moduko esperientzia da; eta, nola ez, ingurukoei gomendatu beharrekoa".

Memoria lantzearen garrantzia

Motorra Ongizate Batzordea bada ere, herriko boluntario talde batek dinamizatu ditu memoria lantzeko tailerrak: hainbat motako ariketak erabiltzen ditugu horretarako. Besteak beste, ariketa matematikoak, kognitiboak, arreta eta oroimena lantzekoak...

Ongizate batzordetik memoria lantzearen garrantzia azpimarratu nahi dugu. "Oso garrantzitsua da memoria lantzea, erabiltzen ez dena galdu egiten baita. Jardun horretan, beharrezkoa da funtzio kognitibo guztiak aktibo mantentzea".

Tailerrak saio praktikoetan oinarritu ditugu, memoria lantzea ez ezik, gainerako funtzio kognitiboak garatzera bideraturik daude. Horrez gain, gauzak gogorarazteko zenbait trikimailu ere erakutsi ditugu.

Adina, mugatu gabe

Adin eta profil askotariko jendeak egin du bat egitasmoarekin. Memoria lantzeko tailerrean parte hartzen duten asko jubilatuak dira, baina guk ez dugu adin mugarik jarri. Oso giro ona sortu da gure artean eta gainera, ariketak egitean, laguntza handia eskaini diogu elkarri; eta hori aberasgarria da tailerrentzako.

Etxean lantzeko modukoa

Memoria lantzeko jardunean, aparteko garrantzia ematen diogu estimulazioari. Hori horrela, parte-hartzaileen esku badago ere, ikasitakoa ez dute zertan memoria tailerreko saioetara mugatu. Etxean ere jarrai dezakete memoria lantzen, besteak beste, sudokuak eginez edo egunkaria irakurri. Finean, burua aktibo mantentzea da gakoa.


Parte-hartzea edo izen-ematea

Tailerrean apuntatu nahi duenak, hileko azken asteazkenetan 18:00etan Bizi-Nahi jubilatu elkartera gerturatu besterik ez du, doakoa da eta materiala bertan emango diogu.

Hurrengo tailerrak maiatzaren 30ean eta ekainaren 27an izango dira.

ANIMATU, ZAIN IZANGO GAITUZU! ■

Biolentzia matxistari aurre egiteko dauden baliabideak



Emakumeen aurkako indarkeria gaur egungo jendarteak duen arazo lazgarrietako bat da. Egitura aldetik, gure jendarteak emakumeak gizonen menpe kokatzen ditu, eta biolentzia matxista errealitate horren baitan ulertu beharra dago, beraz, arazo publiko baten aurrean gaudela esan dezakegu. Indarkeria matxistak, eta, matxismoak, orokorrean, emakumeen duintasunaren eta osotasun fisikoaren nahiz emozionalaren aurka egiten du, eta administrazioek beren gain hartu beharreko lana da min hori erreparatzea.

Indarkeria matxista hiru multzotan sailka dezakegu

- **EGITURAREN INDARKERIA:** Emakumeek eguneroko bizi-tzan pairatutako biolentzia, arlo ekonomikoan, publikoan eta pribatuan ahularen papera hartzen dutelako. Ez da esplizitua, ezta bortitza ere, baina emakumearen garape-nean eragina du, eta indarkeria bortitzari legitimitatea ematen dio.
- **SEXU ERASOAK:** Emakumeen aurka eta bere sexu askatasunaren aurka eginiko edozein sexu izaerako bortizkeria da. Bortxaketarekin lotu izan bada ere, beste bortizkeria mota batzuk ere badira sexu eraso.
- **INDARKERIA MATXISTA (fisikoa nahiz psikologikoa):** Emakumeen eta gizonen arteko harremanetan, gizonak andreen gainetik jarri eta botere harreman bat sortzean gertatzen da. Izan ere, emakumea fisikoki edota psikologikoki menperatua izaten da.

Zer egin indarkeria matxista edo sexu eraso kasuetan, arriskuan bazaude deitu 112 zenbakira edo joan hurbilen duzun Ertzaintza komisariara.

- Salaketak jasotzen ditu eguneko 24 ordutan.
- Abokatu bati deituko zaio, nahi baduzu.
- Harremanetan jarriko da Gizarte zerbitzuekin ostatu premia baduzu.
- Jarraipen pertsonalizatua eta babes neurriak eskainiko dizkizute.

Joan gertuen duzun osasun etxe edo ospitaleko urgentzia zerbitzura

- Lesio fisiko edo psikikoak badituzu azaldu zerk eragin dizkizun.
- Mediku txostenaren kopia eskatu. Dagokion epaitegira bidaliko dute parteak.
- Harremanetan jarriko zaituzte Gizarte Zerbitzuekin.

Deitu gizarte-larrialdietarako foru-zerbitzura 943 22 44 11. Arreta eskaintzen dute 24 orduz.

Entzumen edo mintzamen urritasuna izanez gero, bidali SMSa 600-13 31 12 zenbakira. Honakoa jarri behar duzu: "genero indarkeria", non zauden eta zein den zure izena.

Informazioa nahi baduzu

- Deitu 900 84 01 11 telefonora. 24 orduko zerbitzua, aholkularitza eta informazioa ematen dute, baita dudak argitu ere.
- Aurrez aurreko arreta behar baduzu, hitzordua eska deza-kezu Biktimen Laguntza zerbitzuan: 900 10 09 28/ 943 00 07 68.
- Zure herriko oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jo dezakezu, zure kasuaren berri eman eta orientazio nahiz informazioa eskatzeko.

Gizarte Zerbitzuetan eskaintzen diren baliabideak

- **ARRETA PSIKOLOGIKOA:** Ahalduz ere ikuspegi batetik indarkeria matxistak eragindako beharrezko psikiko-emozionalak lantzen ditu. Indarkeria matxista jasaten duten eta tratamendu psikologikoa hasi nahi duten emakumeei zuzendutako zerbitzua da.
- **ARRETA SOZIO JURIDIKOA:** Sexu askatasunaren aurkako ekintzen nahiz tratu txarren aurrean baliabide juridikoak eta familia zuzenbidearen inguruko banakako arreta eskaintzen du.

Arreta psikosozial anbulatorioa

Diziplina arteko esku-hartzea, hartzailak egoitza zerbitzuan ez dauden emakumeak dira (nahi ez dutelako edota egoitzan egoteko epea amaitu zaielako).

Esku hartze anbulatorioa bi motakoa izan daiteke:

- Indarkeria jasateko arriskuan dauden emakumeei segurtasun, kontzientziario eta laguntze programa eskaintzen diena. Beharren arabera esku-hartze bat diseinatu eta abiaraziko da. Sei hilabete irauten du, baina salbuespen egoeretan epea luza daiteke.
- Egonaldi labur edo ertaineko egoitzetako egonaldia amaituta banakako edo familiako arreta planarekin segitu nahi duten emakumeei zuzendutako jarraipen programa. Ahalduz ere ibilbidearekin jarraitzea du helburu. Sei hilabete irauten duena, baina salbuespen egoeretan epea luza daiteke.

Egoitza zerbitzuak

- Berehalako harrerako edo egonaldi laburreko zerbitzuak, urteko 365 egunetan, eguneko 24 ordutan berehalakotasunez hartzen ditu indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeak eta haien kargu dauden pertsonak. Bertan, kasuaren balorazioa egin eta ibilbide egokiena proposatuko da.
- Egonaldi ertaineko arreta egoitzak: Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei eta haien kargu dauden pertsonen babes eskaini eta esku-hartze espezializatu eta integrala eskaintzea du helburu.
- Autonomia pisuak: Intentsitate handiko babes neurriak behar ez dituzten emakumeei eta haien kargu dauden pertsonen etxebizitza beharrei aurre egitera bideratutako zerbitzua. Babes egoitza batetik igaro ondoren indarkeria matxista egoera batetik suspertzen laguntzea du helburu.

Indarkeria matxista jasandako emakumeentzat diru laguntza puntuala

Indarkeria egoerari aurre egiteko baliabide ekonomikoak eskaintzen ditu, zailtasun ekonomikoak duten emakumeei beren bidea egiten laguntzeko. Indarkeria matxista jasan duten emakumeek eta urrutze agindua dutenek jaso dezakete laguntza. ■

Inkesta

Martxoaren 8ko greba dela eta kalera irten gara emakumeen iritziak jasotzera.

Azken hamarkadetan gizartean gertatu diren aldaketa nagusietako batzuk dira, besteak beste, emakumeek eta gizonen gure gizartean bete behar duten tokia eta posizioari buruzko iritzia eta gizonen eta emakumeen duten eta eduki beharko luketen rola buruzko ikuspegia. Aldaketa hori nabarmena izan da. Nolanahi ere, azken azterlanen eta estatistiken arabera, egoera bestelakoa da. Hau da, oraindik ere asko dugu egiteko emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko; bai tratuari, bai baldintzei eta bai aukerei dagokienez.

Jarraian, herriko hainbat emakumei egin diegun inkesta irakurriahal izango dugu. Beraien iritzia jaso eta guztiokin partekatu nahi izan duguna.



26 urte



39 urte



45 urte



48 urte



52 urte



59 urte



60 urte



70-86 urte bitarteko adineko taldea

Berdintasunera iristeko asko falta zaigula edo gertu gaudela uste duzu?



Asko falta zaigula uste dut. Berdintasuna hitz zabala da, arlo asko dituena eta gure egunerokotasunean dagoena. Nire ustez, orain arte lortu dena asko izan da, baina ez da nahikoa. Hala ere, bide egokitik goaz. Normalean berdintasuna emakume eta gizonen arteko desberdintasunean zentratzen da, baina niretzat garrantzia handiagoa dute gizabanakoen artean sortzen ditugun ezberdintasunek.



Argi dago pasa den mendehasieran baino hobeto gaudela: bozkatu egin dezakegu, unibertsitatetan ikasi, soldatepeko enpleguak izan edota bankuan kontu korrontea ireki. Baina oraindik izugarria da berdintasunerantz egiteko geratzen zaigun bidea, desberdintasunak nonahi baitaude: instituzioetan, lanmunduan, kalean, etxean...



Asko falta zaigu oraindik.



Asko falta zaigula uste dut. Arlo guztietan, ekonomikoki, lanean eta beste esparruetan.



Asko falta zaigula uste dut. Urratsak eman dira, baina arlo ekonomikoan, politikoan, sozialean... berdintasun erreala bat bermatzera iristeko oso-oso urrutit gaudela iruditzen zait.



Asko falta zaigula esango nuke.



Oraindik asko falta zaigu.



Bai. Gure garaitik aldaketa handiak egin dira. Lehen ezinezkoa zen taberna batean emakumea bakarrik ikustea, bazkaltzen edo zerbait hartzen. Kalean, emakumea bakarrik oinez ikustea ere oso "arraroa" zen. Garbi dago gauzak asko aldatu direla, baina egia esateko, mutur batetik bestera pasatzen ari garela ere iruditzen zaigu. "Berdintasuna" hitza pertsona bakoitzak nahi duen bezala, bere onurarako, erabiltzen duela dirudi batzuetan.

"Berdintasuna nere baitan ere hasten da". Ados al zaude esaldi honekin?



Bai ados nago. Kolektibo bezala borroka egiteko lehenengo indibidualki ulertu, hausnartu eta ekin behar da. Norbanakoak ez badu helburu batekin borrokarik egiten, alferrikakoa izango da kolektiboki borroka egitea. "Tantaz tanta betetzen da edalontzia".



Bai, baina esaldi horretako "ere" hori azpimarratu eta ardurak banatzen hasiko nintzateke. Kargu publiko garrantzitsu batek, adibidez, EAEko aurrekontuak kontrolatzen dituen Urkullu batek, hura bozkatu duen herritar xume batek baino ardurazko ere handiagoa du; pulpitotik feministak deabrua direla esateko hitz egiten duen gotzain batek, elizara joaten denak baino; komunikabide handi bateko "señoroak", Hitzako kazetari batek baino. Guztiok eman behar ditugu urratsak, baina batzuek urrats handiagoak eta azkarragoak eman beharko lituzkete.



Bai.



Bai. Guk ez badugu egiten eta gure esku dauden gauzak ez baditugu lantzen eta borrokatzen, jai daukagu.



Bai. Hala ere, egitura arazoetarako erreparatzea beharrezkoa da (beti ere indibiduala ahaztu gabe, baina arazo sozial guztiak kontutan hartuta).



Bai, gainera, sustraieratik hasita izango litzateke, eta hori oso garrantzitsua da.











Bai, baina zaila gertatzen da berdin jokatzeko inguratzeko gaituen guztiak berdintasun neurriak hedatzeko. Halere, esan beharra daukat nire gertukoekin kexatzeko arrazoi ez daukadala.











Bai, guztiz ados.









Zerbaitetan eragin al dizu martxoak 8ko grebak?

-  Nire egunerokotasunean ez da ezer aldatu, baina pertsonalki harro nago martxoak 8an egindakoaz eta gertatutakoaz. Poza sentitu nuen Ordiziako plazan eta beste herrietan egon zen emakume aniztasunaz.
-  Ez niri bakarrik, mundu guztiari eragin dio. Lehenengo, norbera posionatzera bultzatu duelako; ondoren, jendearekin eztabaidatuz, posizio hori defendatzera edo aldatzera derrigortu gaituelako; eta azkenik, zerbait egitera bultzatu gaituelako. Niri pertsonalki zaintza-lanen grebak zer pentsatua eman dit.
-  Buruari buelta batzuk emateko balio izan du.
-  Jende asko atera da mobilizazioetara, eta emakumeen indarra erakutsi dela uste dut. Hala ere, asko falta da emakumearen indar erreala erakusteko.
-  Mugimendu feministaren indarra erakutsi du, baina oraingoz aurrerapauso errealak ez dira iritsi. Indarra erakutsi da.
-  Bai, nire buruarekin gusturago gelditzeko eta denok jakiteko non gauden kokatuta.
-  Ez. Bi orduko geldialdia egin nuen, eta gustura geratu nintzen.
-  Ez. Eguneroko bizitzan ez.

Martxoak 8ko grebarako arrazoirik ba al dagoela uste al duzue?

-  Bai. Desberdintasunak egon bitartean aurrera egin behar da, berdintasunera heldu arte.
-  Noski baietz! Eguneroko sortzen dira hamaika arrazoi greba hori egiteko. Jada datorren urtekoa iristeko gogoz nago, Itsasondon bertan, herri gisa, berdintasunaren bidean sakontzeko beste aukera paregabe bat emango digu-eta!
-  Mobilizatzeko arrazoiak badaudela esango nuke.
-  Bai, benetako berdintasuna izan arte, bihurtu arte, arrazoi bat egongo da greba egiteko.
-  Bai. Oraindik berdintasun errealek praktikora iristeko lan asko dagoelako.
-  Dudarik gabe. Behin eta berriro jarraitu beharko da horrelako ekimenak egiten. Oroimen hauskorra du gaur egungo gizarteak (gizonezkoek).
-  Bai, aldatu beharreko ohitura, pentsamolde, jokabide... asko daude oraindik.
-  Bai. Zenbait eskubide lortzeko balio du. Dena den, uste dut urtean behin egindako "grebak" ez gaituela oso urrutira eramango.

Behin ere sentitu al zara baztertua edo gutxietsia emakume izateagatik?

-  Ez naiz inoiz gutxietsia sentitu, baina alderantzizko egoeran egon izan naiz. Hau da, lanpostu berean gizon eta emakumea egon, eta ni neuk gizonezkoak baino soldata altuagoa izan. Gaur egun, tailer batean egiten dut lan, eta badira gutxi batzuk harridura aurpegiarekin begiratzen nautenak eta mekanikoa non dagoen galdetzen dutenak.
-  Gaztetan, teoria ezagutzen banuen ere, ez nintzen nire inguruan bazterketa hori ikusteko gai. Baina urteak aurrera egin eta ikuspegi kritikoa zorrotzu ahala, nik neuk, adibidez iritziak ematerakoan, askotan izan dut sentsazioa gizonekiko bigarren mailakotzat hartzen nindutela, emakume zein gizonezkoek. Jarrera horiek patriarkatuaren ondorio dira, eta guztiok ditugu barru-barruan iltzaturata.
-  Bai, baina txikikerietan.
-  Bai.
-  Bai.
-  Bai. Gizarteratua egonez gero, egunerokotasuneko gauza bat da. Beste gauza bat da ez ikusiarena egitea. Hauxe da une honetan dugun errealitatea, eta aldatu behar dena. Bai edo bai.
-  Bai, gertatzen dira horrelakoak, baina egoera horietara ere ohituta gaudela esango nuke.
-  Bai, oraindik ere badaude halako gutxiespen jarrerak. Lehen baino gutxiago, baina bai, eta ez luke horrela izan behar. ■



Martxoaren 8ak izan du bere aldarria Itsasondon

MARTXOAK 8

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna edo Emakumearen Nazioarteko Eguna martxoaren 8an ospatzen da, eta emakumeen eskubideen aldeko borroka gogoratzeko zein eskubide horiek betetzea eskatzeko ere erabiltzen da eguna.

Badirudi antzinako Grezian, emakume batzuek berdintasunaren aldeko aldarrikapenak egin zituztela, baina denboran urrunegi geratzen da hori egia dela ziurtatu ahal izateko.

Historiako pasarte ezagunena eta, dirudienez, guztiz egia ez dena, 1908an kokatzen da. Diotenez, New Yorkeko fabrika handietan josten aritzen ziren emakume ugari egin zuten greba, lan orduak hamarrera murrizteko, igandetan jai izateko eta haurren lanarekin amaitzeko asmoz. Azken finean, gizonezkoen eskubide berak aldarrikatzen zituzten. Antza denez, greba horiek amaiera tragikoa izan zuten, 129 emakume Cotton Textile Factory fabrikari hil ondoren. Fabrikaren jabeak, lantokiko ateak itxi eta langileak barruan zeudela, su eman omen zion eraikinari. Hau martxoaren zortzian izan zela uste dute. Hurrengo urteetan, beste zenbait greba eta abarren eraginez, martxoaren zortzia emakume langileen nazioarteko egun bilakatu zutela diote historiako pasarte ezagunenek.

Wikipediaren arabera, Emakumeen Nazioarteko Eguna, lehenengoz, 1909ko otsailaren 28an ospatu zen, Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) New York hirian, AEBetako Alderdi Sozialistak antolatuta. Manifestazioa antolatu zuten oihalgintzako emakume langileek, 1917ko martxoaren 8an Errusiar Inperioko hiriburua zen Petrograden (gaur egungo San Petersburgo). Hiri guztia hartu zuten, eta hura izan zen Errusiako Iraultza piztu zuen ekintza nagusietako bat. Egun hau batez ere herrialde eta mugimendu sozialista eta komunistek ospatu izan zuten; 1975ean, Nazio Batuen Erakundeak nazioarteko egun izendatu zuen arte.

Kronologikoki hau izan da bilakaera:

- 1909: Emakumearen Egun Nazionalaren ospakizuna AEBetan.
- 1910: Emakumeen Nazioarteko Egunaren deialdia.
- 1911: Lehen ospakizuna.
- 1917: Errusiako Iraultzaren pizgarri.
- 1922-1975: Dataren egonkortzea eta instituzionalizazioa.
- 1977: Lehen ospakizuna Euskal Herrian.
- 2018: Nazioarteko lanuzte eguna.



Bizi-Nahi jubilatu elkarteko kideak omenaldia jasotzen

EMAKUMEON ESKUBIDEEN DEFENTSAN, KALERA!

Mobilizazio eta ekitaldiz betetako eguna izan zen martxoaren 8a. 11:00etan herriko plazan elkarteko deialdia egin zen, eta jende ugari bildu zen plazan: Urkipe eskolako irakasleak, herriko medikua eta erizaina, udaletxeko langileak, Kaxintaneko langileak eta beste esparru batzuetako herritarrak. Ordizian deituta zegoen elkarretaratzera abiatu ginen bidegorritik, eta ongietorri beroa egin ziguten Ordiziako plazara gerturatzen ari ginela. Elkarretaratzea amaitu ondoren, Itsasondora bueltatu eta Bizi-Nahi elkartera joan ginen, bakoitzak bere etxetik ekarritako bazkariarekin.

18:00etan herrian zegoen deituta elkarretaratzea, emakume eta gizonen arteko berdintasuna aldarrikatzeko. Gure sorpresarako, berriz jende andana elkartu ginen, eta inguruko herrietako zenbait emakume ere bertaratu ziren.

Martxoak 8ko grebaren ondorioz, Itsasondoko emakumeon afaria martxoaren 10era atzeratu genuen. Bertso-bazkaria izan genuen Ainhoa Agirreazaldegi eta Uxue Alberdirekin, eta bazkaloste ederra eskaini ziguten beraien bertsoaldiarekin.

Aurtengo omenaldia Bizi Nahi jubilatu elkarteko batzordeko emakumeei egin zaie. Asko dira bertatik pasa diren emakumeak eta isilean lan asko egin dutenak, eta oroigarria gaur egungo kideei eman bazaie ere, omenaldia urte hauetan guztietan hortik pasatu diren guztiei egin nahi izan zitzaizen.

Eta azkenik ezin ahaztu, bazkal aurreko herriko BATUKALEROAK taldearen erakustaldiarekin. EDERRA BENETAN, BEJON DEIZUELA! SEGI HORRELA. ■

Gizon eta emakumeen topaketa eguna, ekainaren 30a

Itsasondoko Ongizate taldetik Berdintasun gaia jorratzen gabiltza. Nabaria da gizonak eta emakumeak ezberdinak garela, baina eskubideei dagokionez, behintzat, berdintasunera bidea landu beharko genuke arlo askotan. Laburbilduz, ondoko hau litzateke gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko jardunbide egokien dekalogo:

1. Berdintasunean hezi. Sexuaren araberako desberdintasunak nabarmentzen dituzten ohiturak eta joerak gainditzen lagundu, tratu baztertzaila dakarten ohitura matxistak gaindituz.
2. Ez onartu pertsona bat emakumea delako bizitzako esparru bakar batean ere gutxietsia izatea. Salatu emakumeen giza eskubideen urraketa.
3. Bizitza sozio-politiko, ekonomiko eta kulturalako esparru guztietan, eta erabakitzeke maila guztietan, emakume eta gizonen parte-hartze berdina bultzatu, eskubide eta betebeharrak berdinekin.
4. Defendatu eta lan egin ezazu erakunde ofizial nahiz enpresa pribatuek etxeko bizitza, pertsonala eta laneakoz uztartu ahal izateko inplikatu eta behar diren neurri guztiak har ditzaten.
5. Etxeko lanak eta zaintza-lanak berdintasunean eta arduraz bana daitezzen sustatu eta horretan parte hartu. Zeure etxean sustatu, eta izan zaitez eredu zeure inguruarentzat.
6. Gizartean parte hartu eta bultzatu itzazu genero-berdintasunaren aldeko ekimenak.
7. Bultzatu ezazu hizkera ez-sexista erabiltzea.
8. Zure eta zuen etxekoek kontsumorako aukeratu eduki matxistarik ez duten filmak, serieak, ipuinak, liburuak etab.
9. Zure etxeko eta laneko inguru hurbilean bultzatu sexu-berdintasunaren inguruko komunikazioa eta elkarriketa.
10. Emakume guztientzako tratu- eta eskubide-berdintasuna exijitu. Eta ukatuak direnaldi oro, edo ukatu direla dakizun bakoitzean, salatu. Emakumeen desberdintasun egoera eta tratu baztertzaila desagerraraztea hiritar guztion lana da (ez soilik emakumeena). Eta gizarte osoa suertatuko da irabazle.

Dekalogo honetan oinarritu gara Itsasondon urtean zehar ekimen ezberdinak antolatzeke: topaketa gastronomikoa, film emanaldia, jolas ez-sexisten inguruko tailerra eta sexu hezkuntzarako ikastaroa, besteak beste.

Kasu honetan, ekainaren 30ean ospatuko dugun Topagunearen berri eman nahi dizuegu. Goizean zehar, kontzientzia piztera bideratutako ekintzak izango ditugu herrian, sorpresaz beteriko eguerdia izango dugu ondoren; eta, arratsaldean, familia giroan gozatzeko aukera aprobetxatuko dugu.

Adi egon! Izan ere, ekintza ezberdinetan parte hartzeko izen-emate zerrendak laster herritarron eskura izango ditugu ohiko lekuetan. Guztion lana delako eta Itsasondo Berdintasun bidean dagoelako, animatu eta parte hartu! ■



Crearte proiektua S.O.S. errefuxiatuak

Inesek, Asturiaseko bolondres zeramikari batek, proiektu hezitzaile-sortzailea aurkeztu zigun, helburu desberdinekin; besteak beste, Greziako umeengan esperantza helaraztea, bertoko haurren laguntza kontzientzia piztea eta elkarlanean lorpen handiak eskuratu ditzakegula ikustaraztea.

Proiektua martxan jarri zen Arriondaseko El Sueveko Institutuan, Asturiasen. Ikasleek ipuinak idatzi eta ingeleratu zituzten, eta ondoren, audioen bidez, Atenaseko Squad City Plazan dauden haur errefuxiatuei bidali zizkieten, hauek ipuinei buruzko marrazkiak egin zituzten.

Aldi berean, bolondres zeramikariarekin buztin tailer batzuk antolatu ziren eta bertoko haurrek buztin pieza batzuk egin zituzten bertan lortutako marrazkiak agertzen zirelarik.

Tailerretan Skipe bidez City Plazarekin konexioak egin zituzten. Haur eta gazteek, bi herrialdeetan, zuzenean ingeleraz komunikatzeko aukera izan zuten, beraien arteko harremanak sendotuz eta kultura desberdinak ezagutuz. Han eta hemen haurrak motibatu ziren eta elkarrekin energia eta ilusio handiarekin lan egiten hasi ziren.

Lortutako emaitza pieza zoragarriak izan ziren; bi taldeen arteko sormenak bat egin zuen, distantzia, hizkuntza, kulturak nahasteren ondorio gisa; era horretan, asmo ona eta gogoia medio direla gauza ederrak lortu daitezkeela erakutsi zuten.

Azoka Solidarioetan beraiek egindako piezak eta katilu batzuk salgai jarri zituzten. Katiluak Toledoko buztin-gile bolondres batek, Franek, landu zituen tornuan. Horrez gain, tailer batzuk antolatu zituen El Sueveko institutoan, proiektuari jarraipena emanez, eta aipatutako katiluetan marrazkiak serigrafiatu zituzten. Horrela, haurrek beraiek, Atenaseko lagunentzako dirua bildu zuten, prozesu osoan parte hartuz.

“Victoria” S.O.S. Errefuxiatuak Atenasen martxan jarri duen gizarte zentroa da. Bertan, Zaporeak elkarte euskaldunak, egunero 300 gosari eta 600 bazkari zerbitzatzen ditu Atenaseko kaleetan dauden errefuxiatu babesgabebetuentzat. Katiluek, haur errefuxiatuek egindako marrazkiekin, dirua lortzeko balio dute, baita S.O.S. Errefuxiatuen “Victoria” proiektua eta beste ekintza batzuk bizirik mantentzeko ere.

ZURE LAGUNTZAREKIN POSIBLE DA, ESKERRIK ASKO! ■



KATILU SOLIDARIOAK

Arima handia duen proiektu bat aurkeztera goaz, Atenasen, Grezian dauden haur errefuxiatuek egindako marrazkiekin batera jaio den kanpaina ederra: CRE-ARTE proiektua, hain zuzen.

Apirilean jakin genuen Hotz Legazpi elkarteak kanpaina abian jarri zuela. Legazpiko bolondres taldeak, errefuxiatuekin ardura hartuta, katilu solidarioen kanpaina martxan jarri zuen eta, jakin dugunez, Legazpin izugarrizko harrera ona izan du. Hiru egunetan 210 katilu saldu dituzte eta legazpiar asko beraien katiluen zain geratu dira. Beraz, hurrengo astean berriro ere kalera aterako dira katilu gehiago saltzeko asmoz.

Franek, Toledoko azken buztin-gileak, katiluei forma ematen die eta Inesek, zeramikari asturiarrak, Atenaseko haur errefuxiatuek Victoria Gizarte Zentroko tailerretan egindako marrazkiak egokitzen ditu.

“En Red S.O.S. Refugiados”ek Atenasen duen Victoria Gizarte Zentroan egunero 300 gosari eta 600 bazkari banatzen ditu, “Zaporeak” elkartearen laguntzarekin.

Beraiekin harremanetan jarri eta Itsasondon katiluak saltzeko asmoa badugula adierazi nahi dizuegu. Zure katilua eskuratzeko izen emate zerrendak Kaxintanen eta Lurdesen dendan egongo dira. Kaxintanen, gainera, katilu batzuk ikusgai egongo dira.

Katilu bakoitzak 10 euro balio du eta bildutako dirua bi proiektuetara bideratuko da:

- En Red S.O.S. Errefuxiatuak (Atenasen dagoen Victoria Gizarte Zentrora)
- Itsas Laguntza Humanitaria Donostia (SMH, Maydayteraneo proiekturako)

Eskerrak eman nahi dizkizuegu Itsasondoar guztiei orain arte erakutsitako elkartasunarengatik.

Nik badut jada nire katilua, eta zuk? ■

Itsasondon, konpostajearen bidez hondakinak birziklatzen ari gara!

Itsasondoko biztanleok sortzen dugun hondakinen erdia materia organikoa da, eta 2017 urtean, udalerritik 60 tona Nafarroara bidali genituen birziklatzeko. Hondakin horiek herrian bertan konpostatuz gero, murriztu egingo lirateke haiek herriko kanpo kudeatzeagatik sortzen diren gastuak: bilketa, garraioa, tratamendua etab.

Beraz, herrian konpostatzea jasangarriagoa da, eta oso erraza, gainera. Hori dela eta, Itsasondoko Udalak herritarroei etxean sortutako hondakin organikoak konpostatzeko aukera ematen digu (sukalde-hondarrak, hostoak, belarra, kimaketa-hondarrak etab.). Izan ere, zortzi auzoetan guneak jarri ditu bertan gure hondakin organikoa bota ahal izateko eta elkarrekin konposta egiteko. Nahiz eta konpostajea gauza erraza izan, zalantzak sortu daitezke. Horregatik, udalak teknikari bat kontratatu du laguntza emateko eta partehartzaileak trebatzeko.



Konpostatzeko gune bat

Gaur egun Itsasondoko herritarren %50a etxean sortzen ditugun hondakin organikoa konpostatzen ari gara. 100 familia inguru, Nautiko taberna, Kaxintane taberna, Eskola, Lurdes janaridenda eta Arbelaitz Elkarrekin parte hartzen dute, hasiera bikaina da. Hala ere, gai organikoak herrian bertan konpostajearen bidez birziklatzea herrirako aukerarik egokiena denez, espero dugu familia gehiago animatzea konpostajearen parte hartzeri. **Gainera, hondakin organikoa kudeatzeko gastuak murriztuko direnez, Udalak partehartzaileei hondakinen tasan murrizketa aplikatzea aurreikusten du.**

Kanpaina honetan parte hartu eta "konposta egile" bihurtu nahi baduzu, Udaletxean izena eman dezakezu zure datu pertsonalak, telefono zenbakia eta helbidea emanez.

Konpostatzea oso erraza da!

Hondakin organikoak poltsarik gabe



Hondakin organikoak bota



Kimaketa-hondarrekin tapatu



Gutziz tapatuta utzi





Deskargatzeko sareak hilda daude?

P2P sareak, edota beste izen batzuekin ezagutzen ditugunak (Emule, Ares, Torrent...) erabiltzen al dira oraindik?

Ez dakit gaur egungo gazteek teknika hauek ezagutuko dituzten. Baina egia da Interneten hasierako iraultza bizi izan dugunok noizbait erabili izan ditugula. Musika, pelikula edo halako zerbait deskargatzea beti lotu izan dugu programa hauekin: Emule, Torrent, Ares, Direct Connect...

Baina erabiltzen al dira gaur egun? Bateren batek jarraituko du martxan, baina ez hasieran zuten indarrarekin. Denborarekin plataforma horien eragina asko galdu da, hainbat arrazoirengatik. Arrazoi horietako bat da gaur egungo deskarga abiadura. Internet zerbitzua ematen duten enpresek sarea gero eta azkarrago erabiltzeko baliabideak eskaintzen dituzte eta, beraz, zerbait jaisterakoan, deskarga zuzen

batekin nahikoa da. Ez da beharrezkoa beste programa batzuk bitartekari moduan erabiltzea (hau da, p2p sareak), esaterako, Emule edo Torrent.

Bestalde, kultur administrazioetik eta diskografia industrialetik, deskarga zerbitzu asko ixtea lortu dute, presioa eginda. Horiek salatzen dute deskargak ez direla legezkoak, baina borroka horren muina enpresek galtzen duten dirua da.

Pirateriaren aurkako sistemak ere sortu dira, sare horien eginkizuna izorratzeko. Hau da, pirata moduan deskargatutako programa informatiko askok bere baitan zituzten programa horiek ez abiarazteko hainbat fitxategi. Horrez gain, fitxategi faltsuak ere sartzen zituzten; hau da, fitxategia jaitsi orduko ikusten zenuen ez zela, esaterako, zuk nahi zenuen pelikula (askotan film pornoak izaten ziren).

Ondorioz, gaur egun, modan jarri dira pack eta bazkidetza bidezko liburutegiak. Esate baterako, Netflix, HBO, Amazon Prime eta abar. Gaur egungo joera plataforma horietara doa. Harpidetza bat ordaintzen duzu, eta nahi adina aldiz ikus ditzakezu filmak, serieak, estreinaldiak...

Gaur egun nahi duguna da guztia eskura izatea, ahalik eta azkarren eta ahalik eta gutxien ordainduta. Lehen erabiltzen ziren programak ez dute bat egiten gaur egungo gizartearekin; haien programazioa zaila da, eta eragiteko ahalmena galtzen joan dira.

Beti izango ditugu deskargak egiteko zuzeneko estekak, baina P2P mundua ahultzen ari da. Halakoa da Internet eta haren garapena. ■





Sukalde tailerra

Otsailaren 23an hogeit hamar lagun bildu zen Arbelaitz elkartearen sarrerako bi plater, tartekoa eta postrea prestatzeko Iker Mendizabal irakasle zutela.

Aldez aurretik, hainbat lan eta prestaketa eginda bazituen ere, laster jarri zituen denak lanean lkerrek, eginez ikasten dela jakina baita! Beraz, amantalak jantzi, eta sukaldean lanari ekin zioten, kozinatuta egin behar baitzuten, ondoren, jaki goxoak afaltzeko.

Denen artean lkerren azalpenak adi-adi entzunez prestatu zituzten honakoak: mi cuit-a; arrautzak loretan; arkumea cava ukituarekin eta mahats aleekin; eta azkenik, postrea, jogurta fruitu gorriekin.

Sukaldean aritu ondoren, mahai bueltan eseri eta afari ederra egin zuten, oso goxoa baitzegoen guztia.

Giro ederrean, beste saio baterako ere prest agertu zen jendea. Ea ba, hurrengoan ere jendea horrela animatzen den! ■

ARRAUTZAK LORETAN

OSAGAIK (6 PERTSONA):

6 arrautza, 3 urdaiazpiko xerra, 3 patata, tomate frijitua, film plastikoa, olioia eta perrexila.

PRESTAKETA:

1. Sei katilutan film-a jarri, tarte bat utzita eta olioarekin igurtzita.
2. Urdaiazpikoa eta perrexila txikitu.
3. Arrautza bat, urdaiazpiko zati batzuk eta perrexila katiluan jarri.
4. Film-arekin dena bildu eta haritxo batez lotu.
5. Ontzi batean ura irakiten jarri, eta arrautzak sartu. 12 minutuz eduki, eta atera. Hariak moztu eta arrautzak film-etik atera.
6. Lagungarri bezala, patatak panadera erara egin, eta prestatu tomate frijitua.
7. Tomatea plateran jari, horren gainean patatak eta erdian arrautza. Gainetik, olio txorrotada bat gehitu.

ARKUMEA CAVA UKITUAREKIN ETA MAHATS ALEEKIN

OSAGAIK (6 PERTSONA)

Arkume erdia, 500 g mahats, 8 txalota, gurina eta cava botila. PRESTAKETA:

1. Arkumea labeko plaka batean jarri. Olioarekin igurtzi, eta labean sartu ur pixka batekin. Labea aurrez berotuta eduki; eta, ondoren, arkumea ordubetez eduki. Gero, buelta eman, beste 30 minutuz. Kontuan izan beti ur pixka bat eduki behar duela.
2. Kazola batean gurina eta txalota txiki-txiki eginda jarri. Haur biguntzen denean, aurrez zuritutako eta hezurtoak kendutako mahats aleak gehitu. Kolorez aldatzen direnean, cava bota eta utzi erreduzitzen, gutxi gorabehera ordubetez.
3. Arkumeari berari ateratako zukua bildu eta cavari gehitu, beste hamar minutuz eduki.
4. Arkume zatia plateran jari eta cava erreduzioaz estali.

Ipuin kontalaria

Apirilaren 6an, Aste Santuko oporren azken txanpan, Fernando Anbustegiren eskutik Kontu eta Kantu ikuskizuna izan genuen, Itsasondoko haur txokoan.

Bertaratutako haurrak asko izan ez baziren ere, une dibertigarri eta goxoak eskaini zizkigun Fernandok bere ipuin, kontu, bertso eta kantu moldatuekin. Ordubeteko ikuskizun xume baina gogoangarria, Nuax hodeiak eta gainontzeko lagunek literatura, bertsolaritza eta kantuak uztartuz eskainitakoa, mundua eta gu geu ere, momentu batez bada ere, hobexegoa egiten duten ipuinak. ■



(natura)

Udaberria

Pasa da negua eta heldu da udaberria. Antzinako Erroman, Flora jainkosak udaberria pertsonifikatzen zuen. Udaberria naturaren hazte eta berritzeko garaia bezala sentitzen dugu gaur egun ere: landare eta animaliak sortzen dira, eta bizitzaren zikloa berriro hasten da...

Loratu dira gure zelaiak, eta oraingoan, oso ezaguna zaigun lore baten berri eman nahi dizuet.

PRIMULA edo SAN JOSE LOREA

Bedats lilia, bitxileta, ostaiska, ostorika, pitxilindra, udaberri lorea, udaberri lore goiztiarra

Udaberrian goiz loratzen direlako hartzen dute izen hori.

Lore horia eta usainduna da. Leku umel eta freskoetan agertzen da gehienetan.

Latineko primus izenak udaberriko lehenengoa adierazten du, udaberrian lehen loratzen dena alegia.

Erabilera zabala du sukaldaritzan. Hosto berriak, gordinik edo prestatuta jan daitezke, baita zopen gehigarri bezala ere. Zapore arina du.

Garagardoa eta zenbait ardo lurrintzeko ere erabiltzen da lore hori.

Loreak entsaladetarako gehigarri bezala erabiltzeko egokiak dira eta baita barazki bezala ere.

Ireki berritan jasotako loreak, ura eta azukretan hartzituta ardo goxo bat egiten da.

Hosto eta loreekin sirope eta teak ere egin daitezke.

Haziekien olioak egiten da. Olio hori oso erabilia da sukaldaritzan. Gainera, ezaugarri terapeutiko asko ditu, zenbait azido graso eta omega 6 famatua dituelako. Primula olioak lagungarria da bihotzeko gaixotasunak ekiditeko, defentsak indartzeko eta emakumeetan hilekoa erregulatzeko edo menopausian laguntzeko, besteak beste.

Dastatu eta GOZATU! ■



Maddalen Sarasola



(enzezeta)

Alkatxofadun, batzuridun eta trufadun risottoa

4 pertsonentzako osagaiak:

- 500 g Carnaroli erako arroza
- 100 g Baratxuri samurra
- 300 g Alkatxofa oso
- 2 Baratxuri ale
- 30 g Trufa
- Tipula 1
- 100g Parmesano gazta birrindua
- 50 ml esnegain
- 50 ml olio

Lehendabizi alkatxofak osorik egosten jarriko ditugu, bigunak egon arte. Horiek egosteko, uraz gain, bi limoi moztuta eta zukututa jarriko ditugu; baita uretan disolbatutako irin pixka bat ere. Guzti hau egitea komeni da alkatxofak ilundu ez daitezen.

Tipulak oso fin moztu eta arrozarekin batera kazuela batean jarriko ditugu, beti ere su baxuan, pixka bat gorritu daitezen. Arroza horituta eta tipula frijituta ditugunean, edalontzi bat bete ardo zuri eta gatz pixka bat botako diogu. Ardoa lurrundu ondoren, alkatxofak moztuta, kazolara botako ditugu; eta, ondoren, alkatxofak egosteko erabilitako ura eta pixka bat gehixeago botako dugu.

Arroza puntu-puntu dagoenean, sutatik kendu eta trufa birrinduta, parmesano gazta eta esnegaina gehituko dizkiogu. Guzti horrekin risotto krematsua gozoagoa lortuko dugu. Azkenik, gatz gehiago behar duen probatuko dugu eta horrekin, platera prest izango dugu. On egin! ■



Asier Arbilla
Arbeletxe jatetxea. LA SEU D'URGELL
www.arbeletxe.com
973 361 634

Euskararen atala

Euskara txukuntzen

Hona hemen gure egunerokoan euskara erabiltzean egiten ditugun hanka sartzeen zenbait adibide. Saia gaitetzen zuzentzen!

Euskara "makarronikoa"	Euskara txukuna
Da tipo SUPERJATORRA!!!	OSO mutil JATORRA da!
Etxean geratu da ikasten, PORKE bihar esamina dauka	Etxean geratu da ikasten, bihar azterketa izango DU ETA!
JODER, hi! LA HOSTIA izan duk gaur goizekoa!	DEDIO, hi! MARKAKOA (IZUGARRIA) izan duk goizekoa!

Euskaraz bai, umorea ere bai

Egun batean honela galdetu zioten Lazkao-Txikiri:

– Zu, Joxe Migel, nun jaio zīñan? – Lazkaon.

– Eta hazi? – Hazi iñun ere ez!

Albistea

Euskaldunen erdiek bahino geihagok ez dute euskal kultura kontsumitzen.

Euskaldun gehienek ez dute euskal kultura kontsumitzen: ez euskarazko libururik, ez euskarazko muskarik, ezta euskarazko hedabiderik ere. Kultur kontsumoari buruzko azterketa bat egin du Siadeco ikerketa elkarteak, Elkar fundazioaren enkarguz. Euskarazko kontsumoa ez da euskaldunen erdira ere iristen. Euskarazko kontzertuek dute daturik onena: euskaldunen %47 joan dira azken urtean euskarazko kontzerturen batera. Telebista dago gero: %42k ikusi ohi dute euskaraz. Ondoren datoz gainerakoak: euskarazko diskoak euskaldunen %29k erosten dituzte; euskarazko liburuak irakurtzeko ohitura %23k dute; eta euskarazko prentsa irakurtzekoa, %21ek. Hori, euskaldunen artean. Kontuan hartuta euskaldunak gutxiengoak direla Euskal Herrian (%28), euskal kulturaren kontsumoa are mugatuago dago.

Euskal kultura kontsumitzeko ohiturari buruzko azterketa egin dute. Euskal Herri osoa hartu dute aztergai, eta 2.500 inkesta egin dituzte. 16 urtetik gorakoen artean burutu dute inkesta.

Irakurzaletasuna, gurasoen esku

Irakurketa haurtzaroan hasten den zaletasuna da. Iruditzen zaigu, gaur egun, sekula baino arrisku handiagoa dagoela haurrek irakurketa guraso eta irakasleen inposaketa gisa hartzeko. Irakurketa euren denboraren zati bat letra artean murgilduta egotea bezala ikusten dute, baina ez dute irakurketak sor ditzakeen abentura liluragarririk bizi izateko aukera gisa uleratzen.

Zer egin dezaket nire seme-alabek irakur dezaten?

Ez behartu irakurtzera. Jarduera guztiek bezala, irakurketak konstantzia behar du, ohitura bihurtuko bada. Sekula ez da irakurtzera behartu behar, baina eguneroko kontu bihur daiteke (bihurtu behar du). Aisialdiko zati bihurtzea da kontua, telebista ikustea eta jolas egitea diren bezala. Txiki-txikitan aitak eta amak izango dute zuzenean funtzio hori. Denborarekin zabalduz joango da irakurketari eskaintzen zaion tartea eta haurrek eurek erabakiko dute zenbat, noiz eta non irakurriko duten.

Liburuak eskura jarri

Jostailuak ez badira ere, liburuak eskura egon behar dute, nork bereak zein besterenak. Garrantzitsua da liburuari apalategiak apaindu besterik egiten ez dituen gauza garrantzitsuaren estatus hori kentzea. Are gehiago, haurra jaiotzen denetik bere liburutegia izatea bultzatu behar da, liburuak, irakurri ondoren, gainditu egiten baitu gauza material hutsaren izaera.

Eguneroko ohitura

Txikienei gauero ipuin bat irakurtzea eguneroko irakurketa ohitura bihurtuko da, denborarekin.

Zalantzak argitu

Ulertzen ez diren terminoak elkarrekin bilatu behar dira hiztegian. Hiztegia aberasteko ohitura hartzen da horrela.

Zaletasunetara egokitu

Edozer bihur daiteke irakurketara hurbiltzeko aitzakia: gaurkotasuneko gai bat, pertsonen efemerideak, atentzioa ematen dieten gertaerak edo oso gustuko izan duten film bat. Guztiak aukera paregabea dira liburuenganako grina pizteko.

Irakurketa konpartitu

Seme-alabak handi egiten direnean, gurasook irakurtzen ari garen liburuak eskaintzeko aukera dugu. Adibidez, atsegina izango da Pio Barojaren Zalakainen abenturak irakurtzea eta gero haren ibilerez hitz eginez tarte atsegin bat pasatzea. Irakurketa elkarrizketa gai erakaragarria izango da guraso eta seme-alaben artean.



Oharrak



HAURRESKOLAK MATRIKULAZIO EPEA ZABALDUKO DU

Itsasondoko haurreskolak 2018-2019 ikasturterako matrikulazio epea apirilaren 30etik maiatzaren 11ra arte zabalduko du, beraz, interesa duenak jar dadila beraiekin harremanetan 943-16 48 31 telefono zenbakira deituta.

ERRENTA AITORPENEA EUSKARAZ

UEMAK 2017ko errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina jarri du abian aurten ere. Modu honetan, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskaraz izan daitezten bultzatu nahi dute UEMAK, udalek eta beste hainbat erakunde publikok. Iaz Itsasondori dagokionean, 106 aitortpen egin ziren euskaraz (%32,21) eta 223 gaztelaniaz (%67,78); eskualde mailan aitortpen guztien %22a baino ez zen izan euskaraz.

Errenta aitortpena euskaraz egiteko, zein hizkuntzatan egin nahi dugun aukeratu besterik ez dugu egin behar, beraz, geure aukera Euskararen aldekoa izan dadila!

Kultur Agenda

MAIATZA

- 13 Herri Urrats
- 14 Kirol astea
- 15, 22, 29 Tipi Tapa paseoa | 17:00etan plazan
- 16, 17 Gimnasia eta ondorenen Tipi Tapa paseoa | 17:00etan plazan
- 26 Sagardotegira irteera
- 30 Memoria tailerra | 18:00etan jubilatuen elkartearen
- 31 Bingoa | 17:00etan jubilatuen elkartearen

EKAINA

- 4, 6 18, 20 San Juan egunerako dantza entseguak
- 4 Lurralde eta hirigintza lantaldea | 19:00etan udaletxean
- 6 Herri Bizitza lantaldea | 19:00etan udaletxean
- 6 Ongizate lantaldea | 19:00etan udaletxean
- 5, 12, 17, 26 Tipi Tapa paseoa | 17:00etan plazan
- 9 EH Bilduren batzarra | 10:00etan Kulturagunean
- 10 Eskola Txikien Festa Oikian
- 13 Harrera eguna
- 15, 16 Garagardo festa
- 22 Eskolako azken eguna eta festa
- 23 San Juan sua
- 27 Memoria tailerra | 18:00 jubilatuen elkartearen
- 28 Bingoa | 17:00 jubilatuen elkartearen
- 30 I. Topaketa Eguna

Telefono interesgarriak



Udaletxea	943 881170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	
.....	
Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz Elkarte	943 881339
Lurdes Janari Denda	943 885236
Arrastoa Botika	943 882148
Medikuarenean Txanda Hartzeko	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna / Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ilepaindegia	943 160285
.....	
Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	943 881486

itsasondo 2.0

Herriko Aldizkaria ((39 zk)) Maiatz-Auztur 2018

Ale honetan parte hartu dutenak:

Amaia Salegi
Asier Arbilla
Asier Bazaga
Belen Mendizabal
Bizi Nahi jubilatue elkarte
Danel Etxeberria
Eneritz Albizu
Enma Arrondo
Erkuden Mendizabal
Eskolako haurrak
Itziar Pildain
Joseba Sanchez
Maddalen Sarasola
Maider Sainz de Navarrete
Haurreskolako hezitzaileak
Maddi Alberdi
Maite Lasa
Ruth Gomez
Unai Aldasoro

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua: ISSN:
SS-297-2010 2171-5572



Gipuzkoako Foru Aldundia



GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
IRAILEAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN

